

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Hasierako onarpena ematea Aiarako udalerriko administrazio batzarren artean aurrekontuko partizipazioak banatzea arautzeko ordenantzari

Aiarako Udalbatzak, 2017ko uztailaren 20an egindako ohiko osoko bilkuran, hasierako onarpena eman zion Aiarako Udalaren aurrekontuko partizipazioak Aiarako udalerriko administrazio batzarren artean banatzea arautzeko ordenantzari, eta jendaurrean ipini zen, 2017ko abuztuaren 16ko ALHAOn, 93. zenbakikoan.

Jendaurrean egon zen epean alegazio bat aurkeztu zen, eta, osoko bilkurak 2017ko urriaren 19an hala erabakita, ezetsi egin zen, eta behin betiko onartu ordenantza. Hara hemen nola geratzen den idatzita:

Hasierako onarpena ematea Aiarako udalerriko administrazio batzarren artean aurrekontuko partizipazioak banatzea arautzeko ordenantzari.

Zioen azalpena

Aiarako udalerriak hogeita hiru administrazio batzar biltzen ditu, beste horrenbeste herri-gune kudeatzen dituztenak, udalerraren lurraldea hala baitago banatuta.

Gaur egun arte, administrazio batzar horiek diru xedapenak edo dirulaguntzak jaso izan dituzte Aiarako Udalaren eskutik, beren gastu arruntetako batzuk finantzatzeko, eta diru xedapen eta dirulaguntza horiek udal erabakiek arautu izan dituzte hainbat agintalditan zehar.

Kontuan hartuta dirulaguntzei eta ekarpenei buruzko legediaren eboluzioa, bereziki administrazio batzar bakoitzak egin duen bidea, dela biztanleriaren kopuruaren aldetik dela geografia desberdintasunen aldetik, komeni da beste finantzaketa eredu bat ezartzea administrazio batzar horiek beren kontzeju mugarteetan ematen dituzten zerbitzuetarako.

Horregatik guztiagatik, egoki jotzen da alde batera uztea gastu arruntetarako dirulaguntza helburudunak emateko sistema, gaur egun artekoa, eta administrazio batzarrek Aiarako Udalaren aurrekontuan partizipazioak izateko sistema bat ezartzea, hartara finantza baliabide bat izan dezaten urtero beren ogasunetan, eta banaketarako irizpide objektibo batzuk izan ditzaten, batetik, administrazio batzar bakoitzari gutxienezko finantzaketa bat ziurtatzeko, eta, bestetik, administrazio batzar bakoitzak ematen dituen zerbitzu batzuen eta besteen aldatzeki egokitu dakizkien.

Halaber, beharrezko jo da ezartzea zein epetan ordainduko dizkion Aiarako Udalak administrazio batzar bati eta besteari partizipazio horiek, zeren, neurri horrekin, udalez peko toki erakunde horiek finantza plangintza hobea eta eraginkorragoa izango baitute.

Horretarako, orotarako funtsa hiru zatitan banatzen da:

– Tarte finkoa: zati berdinetan banatuko da administrazio batzar guztien artean.

– Tarte aldagarria: Administrazio batzar bakoitzak Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsetik jasotzen duen ehunekoaren arabera, hura parametro hauen arabera banatzen baita, besteak beste: herritarrak, etxebizitzak, emandako zerbitzuak eta gizarte egoitzarik baden edo ez.

– Aparteko ekarpenak: Udalak administrazio batzarren lokalak bere eskumeneko zerbitzuak emateko erabiltzearen ordainetan, edo baselizen inguruetan ospatzen diren usadiozko festak sustatu eta antolatzeke eragiten diren gastuak konpentsatzearen, festok sendotzeko asmoz.

Udalaren aurrekontuan Aiarako udalerriko administrazio batzarren partizipazioen banaketa arautzeko oinarriak artikulua hauetan arautzen dira:

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen helburua da ezartzea zein irizpide, arau eta manuk arautu behar dituzten Aiarako udalerriko administrazio batzarrek udalaren aurrekontuan izan behar dituzten partizipazioak

2. artikulua. Banaketan parte hartzen duten administrazio batzarrak

Aiarako Udalaren aurrekontuan partizipazioa izateko eskubidea aitortzen zaie udalerriko administrazio batzar guztiei, honako hauei:

- Agiñagako Administrazio Batzarra.
- Añesko administrazio Batzarra
- Opellorako Administrazio Batzarra
- Etxegoiengo Administrazio Batzarra.
- Erbiko Administrazio Batzarra.
- Izoriako Administrazio Batzarra.
- Lexartzuko Administrazio Batzarra.
- Lantenoko Administrazio Batzarra.
- Luiaondoko Administrazio Batzarra
- Luxoko Administrazio Batzarra.
- Madariako Administrazio Batzarra
- Maroñoko Administrazio Batzarra
- Menagarai - Beotegiko Administrazio Batzarra.
- Menoioko Administrazio Batzarra.
- Murgako Administrazio Batzarra.
- Olabezarko Administrazio Batzarra.
- Ozekako Administrazio Batzarra.
- Kexaako Administrazio Batzarra.
- Arespalditzako Administrazio Batzarra.
- Erretesko Administrazio Batzarra.
- Salmantóngo Administrazio Batzarra.
- Soxoko Administrazio Batzarra.
- Zuhatzako Administrazio Batzarra.

3. artikulua. Ekarpenen izaera

Ordenantza hau aplikatuz Aiarako udalerriko administrazio batzarrek jasotzen dituzten diru zenbatekoak beren ogasunen ohiko diru sarrerak dira, libreki xedatzekoak eta inongo baldintzarik gabekoak, arautzen dituen araudiaren konforme dagozkien zerbitzuak sostengatu eta emateko, nahiz kontzejuaren beraren ohiko antolamendu eta kudeaketa gastuak finantzatzeko.

4. artikulua. Jasanarazi beharreko orotarako zenbatekoa

Ondorengo artikuluetan jasotzen diren irizpideen arabera jasanaraztekoa den orotarako zenbatekoa izango da udalaren aurrekontuan urtero izendatzen dena, dela hasieran, dela 943.434.000 "Udalerriko administrazio batzarrak finantzatzeko transferentziak" 943.434.000 aurrekontu partidaren lege onartzen diren aurrekontu aldaketaren ondoriozkoa.

Orotarako zenbateko horren ekarpena kalkulatu da kontuan hartuz lehen aipatutako hiru tarteak.

5. artikulua. Ezohiko ekarpenak

Laugarren artikuluan deskribatutakoaren arabera ezartzen den orotarako zenbatekotik honako zenbateko hauek kenduko dira, eta baldintza hauek betetzen dituzten administrazio batzarren artean banatuko dira:

1. Aiarako Udal honi lokalak uzten dizkioten administrazio batzar guztien artean banatuko da urteko diru zenbateko finko bat, udalak aldian-aldian gauzatzen dituen jarduera eta/edo zerbitzuetarako (esate baterako, udalak antolatzen dituen ikastaro edo tailerrak, edo antzeko beste batzuk), honako baldintza hauekin:

– Udalak lokal horiek erabiltzen baditu urtean 300 orduan baino gehiagoan, administrazio batzarrak 3.000,00 euro jasoko ditu urtean.

– Udalak lokal horiek erabiltzen baditu urtean 101 eta 300 ordu bitartean, administrazio batzarrak 2000,00 euro jasoko ditu urtean.

– Udalak lokal horiek erabiltzen baditu urtean 50 eta 100 ordu bitartean, administrazio batzarrak 1.000,00 euro jasoko ditu urtean.

– Administrazio Batzarrak lokal horiek erabiliko baditu, urtean zehar aldian-aldian izan behar du, eta, beraz, ez da kontuan hartuko bilera edo ekitaldi baterako inoiz erabiltzen bada urtean zehar, aldian-aldian izan gabe.

– Atal honi dagokion ekarpenak bere barnean hatzen du lokalak erabiltzeak dakartzan gastu guztien konpentsazioa (argia, ura, berogailua, higiezinaren aseguruak...), salbu eta garbiketa, Aiarako Udalak zuzenean egin beharrekoa baita.

2. Era berean, 500,00 euro emango zaizkio Luiaondoko Administrazio Batzarrari, eta beste 500,00 euro Lantenoko Administrazio batzarrari, Done Laurendi eta La Blancako basilizen inguruan egiten diren usadiozko jaiak sustatu eta antolatzeko gastuak ordaintzeko, hurrenez hurren.

6. artikulua. Zati finkoko ekarpenak

Zati finkoa izango da orotarako zenbatekoaren % 60, eta banatuko da alde batera utzita bosgarren artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten administrazio batzarrei dagozkien zenbatekoak.

Aiarako udalerriko administrazio batzarretako bakoitzari zati berdinetan banatuko zaie orotarako zenbateko hori.

7. artikulua. Zati aldagarriko ekarpenak

Zati aldagarria izango da orotarako zenbatekoaren % 40, eta banatuko da alde batera utzita bosgarren artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten administrazio batzarrei dagozkien zenbatekoak.

Zati aldagarria banatzean, gehitu egingo dira Arabako toki erakundeak finantzatzeko foru funtsaren banaketan urtero Aiarako udalerriko administrazio batzar bakoitzari behin betiko esleitzen zaizkion zenbatekoak.

Administrazio batzar bakoitzak, tarte aldagarrian, aurreko paragrafoan deskribatutako baturan duen partizipazio ehuneko berbera eskuratuko du.

8. artikulua. Udalaren aurrekontuko partizipazioak determinatu eta ordaintzea

Udalaren aurrekontuko partizipazioak, aurreko artikuluetan azaldutako irizpideen arabera, urteko lehenbiziko seihilekoan determinatuko dira behin-behinean, kontuan hartuz urteko aurrekontu partida, baldin eta aurrekontua onartu bada, edo aurrekontu luzatukoa, osterantzean. Era berean, kontuan hartuko dira Arabako Toki Erakundearen Foru Finantzaketako Funtseko behin-behineko partizipazioak, Arabako Foru Aldundiak behin betiko diru izendapenik egin ezean jakinarazitakoak.

Administrazio Batzarrek udal aurrekontuan izan behar dituzten partizipazioak behin-behinean onartzeko erabakia, berriz, administrazio batzar guztiei jakinaraziko zaie, errekurtsioa aurkeztu ahal izan dezaten kalkuluarekin ados egon ezean.

Urteko lehen hiruhilekoan zehar, behin-behinean zehaztutako partizipazioen ehuneko 50 ordainduko da. Behin betiko ezartzen den diru zenbatekoaren konturako ordainketa eginez ordainduko da.

Urteko hirugarren hiruhilekoaren barruan, betiere administrazio batzarrek Toki Erakundeak Finantzatzeko Arabako Foru Aldundiaren Foru Funtsean duten partizipazioaren behin betiko datuak eskura izandakoan, administrazio batzarrei Aiarako Udalaren aurrekontuan dagozkien partizipazioen behin betiko kalkulua egingo da, kontuan hartuz banatu beharreko zenbatekoa determinatzen duen aurrekontu aplikazioaren datu eguneratuak.

Era berean, diru zenbatekoak behin-behinean determinatzeko erabakiaren modu berean jakinaraziko da, ondorio berekin.

Hirugarren hiruhilekoaren barruan, ahal dela, udalaren aurrekontuan dagozkien partizipazioen arabera behin betiko orotarako zenbatekoak ordainduko zaizkie administrazio batzarrei, lehen hiruhilekoan egindako konturako ordainketa deskontatuz.

Baldin eta administrazio batzarrei dagozkien partizipazioak behin betiko finkatu ondoren, 943.434.000 "Udalerriko administrazio batzarren finantzaketa transferentzia" izeneko aurrekontu aplikazioa gorantz aldatzen bada aurrekontu araudian ezarritako legezko prozeduren arabera, beste erabaki bat onartuko da, zenbateko gehigarria banatzeko, kontuan hartuz tarte finkoak eta aldagarriak, eta, halaber, hirugarren hiruhilekoan dagoeneko ordaindutako zenbateko osagarri gisa ordainduko zaizkie.

9. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Administrazio batzarrek beren kontzejuari dagozkion urteko kontuak aurkeztu beharko ditu (gastuak, diru sarrerak eta kutxago izakinak), behar bezala onartuak, eta Arabako Foru Aldundiak galdegiten duen formatuan, betiere kontuei dagokien urtean ez eta hurrengoaren maiatzaren 1a baino lehen, edo, bestela, araudiz ezarritako datan.

Artikulu honetan galdegindako dokumentazioa aurkeztu ezean, ez zaio ordainduko udalaren hurrengo urteko aurrekontuan administrazio batzarri dagokio partizipazioa, harik eta aipatutako dokumentazioa aurkeztu arte.

Xedapen iragankorra

Zortzigarren artikuluan zenbatekoak determinatu eta ordaintzeko arautzen den prozedura ez da aplikatuko 2017. urtean, ordenantza aplikatzen hasteko urtean, alegia, eta, beraz, behin ordenantza onartutakoan, administrazio batzarrek Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Funtsean izan behar dituzten behin betiko partizipazioei buruzko informazioa eduki bezain laster, behin betiko determinatuko da Aiarako Udalaren 2017ko aurrekontuan administrazio batzar bakoitzari dagokion partizipazioa, eta administrazio batzar guztiei jakinaraziko zaie, egoki deritzeten errekurtsioak aurkezteko epe bat emanez, eta, ondoren, osorik ordainduko zaie.

Azken xedapena

Udal ordenantza orokor hau behin betiko onartu du Udalbatzaren osoko bilkurak. Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, ordenantza hau oso-osorik argitaratuko da ALHAOn, eta han argitaratzen den egunaren biharamunetik hamabost (15) egun baliodun pasatutakoan indarrean jarriko da, aurreko lege bereko 65.2 artikuluan ezarri den bezala.

Arespalditza, 2017ko urriaren 23a

Alkate-lehendakaria
GENTZA ALAMILLO UDAETA